

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 4910

*AGINDUA, 2022ko azaroaren 2koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, arte eszenikoen eta musikalen azpiegiturak modernizatzeko eta modu iraunkorrean kudeatzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena (Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, 2022. urteari dagokiona).*

COVID-19aren pandemiak, osasun-krisiaz gain, krisi ekonomiko handia eragin du mundu osoan, jarduera-sektore zabalak gelditzearen edo moteltzearen ondorioz; horien artean, zalantzarik gabe, kultura-jarduera dago, oro har, eta, bereziki, zuzeneko jarduerena: arte eszenikoak eta musika, batez ere.

Era berean, ikuspegi orokor batetik, Europar Batasunak adierazten du, aurreko ekonomia- eta finantza-krisian bezala, ekonomia eta finantza-sistemak eta gizarte-babeseke sistema indartsu, iraunkor eta erresilienteak garatzeak lagunduko diela estatu kideei eraginkortasun handiagoz erantzuten, eta modu bidezko eta inklusiboan horrelako egoeretatik azkarrago berreskuratzen. Testuinguru horretan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, Europar garrantzia duten esparru politikoei buruzko neurriak babestea aurreikusten du. Neurri horiek sei zutabetan egituratuta daude, eta horien artean daude, besteak beste, trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala eta hazkunde-eredu adimendun, jasangarri eta integratzaile bat, honako hauek barne hartzen dituena: kohesio ekonomikoa, enplegua, produktibitatea, lehiakortasuna, ikerketa, garapena eta berrikuntza.

Mekanismo horren helburuei lagunduko dietela bermatzeko, Europak adierazi du berreskuratze- eta erresilientzia-planek inbertsio publikoko erreformak eta proiektuak gauzatzeko neurriak jaso behar dituztela, herrialde bakoitzaren erronkekin eta lehentasunekin koherenteak eta bateragarriak diren neurrien bidez. Helburu horiek lortzeko, Batasunak mekanismo bat diseinatu du, eta haren helburu espezifikoak da estatu kideei finantza-laguntza ematea, «NEXT Generation EU» izeneko funtsen bidez. Funts horiek aparteko aukera ematen dute errekonstruzio-plan espezifikoak hedatzeko eta pandemiak inbertsioan eta jarduera ekonomikoan duen eraginari aurre egiteko. Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan funtsak eskuratu ahal izateko, estatu kideek berreskuratze- eta erresilientzia-plan bat aurkeztu behar zuten, eta, Espainiako Estatuaren kasuan, Europako Batzordeak 2021eko ekainaren 16an onartu zuen.

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana zeharkako lau ardatzen inguruan egituratzen da: trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala, genero-berdintasuna eta gizarte- eta lurralde-koherentsia. Eta lau ardatz horiek, era berean, hamar palanka-politikatan eta hogeita hamar osagaitan zehazten dira, erreforma eta inbertsioen programa 2023 epemugarekin artikulatzen dutenak. Osagai bakoitzak erronka edo helburu zehatz batean jartzen du arreta, eta helburu horiek lortzen laguntzen duten erreformak eta inbertsioak biltzen ditu. Horietan guztietan, tarteko jomugak eta mugarriak, espero diren emaitzak, onuradunen kopurua eta elementu bakoitzaren kostu zehatza identifikatzen dira.

2021eko uztailaren 13an, Ministro Kontseiluaren bileran, Kultura eta Kirol ministroak proposatuta, Kultura Ministerioaren kontura autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek kudeatutako kredituak banatzeko irizpideak eta lurralde-banaketa proposamena baimentzen dituen Eraba-

kia onartu zen, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 24. osagaiari dagokionez (kultura-industria birbalarizatzea). Horrela, 2021eko irailaren 9an, Kulturaren Konferentzia Sektorialaren esparruan, EAEk bat egin zuen «Next Generation» kredituak banatzeko proposamena eta kreditu horiek banatzeko irizpideak baimentzen dituen akordioarekin.

Azkenik, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema taxutzen duena, eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Agindua, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien mugari eta helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko eta aurrekontuak eta kontabilitatea gauzatzeko eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, dira SEM laguntzei dagokienez Estatuko legegintzako corpusa osatzen dutenak.

Azpiegitura eszenikoak eta musikalak modernizatzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko proiektua 24. osagaiaren barruan sartzen da («kultura-industriaren birbalarizatzea»), bereziki lurraldean zehar kultura dinamizatzeari buruzko 2. inbertsioaren barruan. Hori, aldi berean, C24. I2.P2.S1 azpiegituran banatzen da, eta, 2021eko uztailaren 6ko Europar Batasuneko Kontseiluaren Betearazpen Erabakian, Espainiako leheneratze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoan, ezarritakoarekin bat etorritik, Espainiako lurraldean gutxienez 200 azpiegitura eraldatzea eta modernizatzea du helburu, 2023ko laugarren hiruhilekora arte (355 zenbakiko CID helburua).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, 2020-2024 gobernu-programan, Europar partekatutako jarraibide politikoak ere jasotzen ditu, legegintzaldiko estrategia osoa markatzen duten lau ardatzetan kokatuz: oparotasuna (enplegua eta suspertze ekonomikoa); pertsonak (osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, berdintasuna, gizarte- eta kultura-politikak, bizikidetzeta eta giza eskubideak); planeta (trantsizio energetiko eta klimatiko bidezkoa) eta autogobernua (autogobernu hobea). Era berean, konpromisoa hartu du aktiboki lan egiteko, euskal partaidetza ahalik eta handiena izan dadin Europako programa eta proiektuetan, bereziki Next Generation EUn, politika horiek garatzen laguntzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio arte- eta kultura-jarduerei buruzko eginkizunak, bai eta haien zabalkundea ere, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren arabera –Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena–. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren bidez esleitzen zaizkio eginkizun horiek Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari.

Horrela, aipatutako administrazio-eremuek formulatutako testuinguruaren eta helburu orokorren barruan, bai eta Next Generation UE 2021 funtsak zuzenean kudeatzeko Espainiako Estatuarekin lortutako akordioen barruan ere, 2021eko abenduaren 29an, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko abenduaren 7ko Agindua argitaratu zen EHAAn, zeinaren bidez arautzen eta deitzen baita 2021eko musika-arten eta -azpiegituren modernizazio eta kudeaketa jasangarri-rako dirulaguntzak ematea. Deialdi honen bidez 8 modernizazio-proiektu babestu dira, eta 2022an amaitu beharko dira.

Beraz, iaz hartutako konpromisoekin bat etorritik, deialdi hau 2021ekoaren jarraipena da eta haren helburuei eusten die; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan, arte eszenikoen eta musikaren azpiegiturak modernizatzeko eta modu iraunkorrean kudeatzeko proiektuak bultzatzea, trantsizio ekologikoaren, trantsizio teknologiko-digitalaren eta kudeaketaren hobekuntzaren ikuspegitik. Hori guztia Europar Batasunak egindako irizpide, jarraibide eta araudien esparruan. Azken batean,

helburua da Euskadiko kultura-industrien lehiakortasuna indartzea, eta kultura-ekoizpenaren eskaintza hainbat modutan elkarri lotzea eta haietaz gozatzea erraztea, gero eta erakargarriagoa izan dadin euskal gizartearentzat berarentzat, eta, aldi berean, lehiakorra nazioartean.

Era berean, agindu hau sartuta dago Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2021-2024 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2021eko otsailaren 18ko Aginduaren bidez onartua) eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko otsailaren 16ko Aginduaren bidez onartutako 2022ko Dirulaguntzen Urteko Planean (biak ere sailaren webgunean argitaratuak). Esteka honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/201-planeta-saila-euskalsaila-plana/202saila-plana/>

Ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburuak.

1.– Agindu honen esparruan emango diren laguntzen helburua da arte eszenikoen edo musikaren lanbide-jarduera garatzen den azpiegituren modernizazio eta kudeaketa jasangarria bideratutako inbertsio-proiektuak finantzatzea, 5.2 artikuluan zehazten den bezala.

2.– Diruz lagunduko diren proiektuek ekipamendua erosteko eta/edo honako ardatz edo helburu hauetara bideratutako jarduerak garatzeko inbertsioak jaso beharko dituzte:

- a) Ingurumen-eraldaketa.
- b) Eraldaketa digitala.
- c) Kudeaketa hobetzea.

Erreferentzia gisa, deialdi honen I. eranskinean aipatutako hiru ardatzen barruko proiektuak garatzeko egin daitezkeen inbertsioen zerrenda gehitu da.

3.– Dirulaguntza C24.I2.P2.S1 azpi-proiektuan sartuta dago, hau da, Europar Batasuna Next Generation EU-k finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 24. osagaien sartuta dagoen «Arte eszeniko eta musikalen azpiegituren modernizazioa eta kudeaketa jasangarria».

4.– Oinarri arautzaile hauen babesean emandako dirulaguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak (aurrerantzean, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamendua) ezarritako Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatuko dira. Europako funtsekin finantzatu daitezkeen dirulaguntza horiek izapidetzeari eta emateari aplikatuko zaie abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitakoa (36/2020 Errege Lege Dekretua, Herri Administrazioa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituena), aplikatzekoa den gainerako araudiari kalterik egin gabe.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdiari egotz dakioken gehieneko zenbatekoa 711.527,20 eurokoa izango da; 2023ko ekitaldiari dagokio.

3. artikulua.– Etika eta Jokabide Kodea.

1.– Deialdia egin duen administrazioiko enplegatu publikoek eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kargura finantzatutako funtsen onuradun diren erakundeko langileek Etika

eta Jokabide Kodean jasotakoa (II. eranskina) bete beharko dute, 22., 9.3. eta 17.2 artikuluetan arautzen den bezala.

2.– Horri dagokionez, III. eranskinean identifikatutako kasuren bat gertatu dela egiaztatzen bada, iruzur-zantzu bat izango litzateke.

4. artikulua.– Onuradun izateko baldintzak.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira izaera pribatua duten eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona juridikoak, baldin eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Arte eszenikoen eta musikaren ekoizpen edo programazio profesionalaren eremuetan ohiko jarduera garatzea.

b) Diruz laguntzea nahi den proiektuak xede duen azpiegituraren jabetzaren titulartasuna egiaztatzea, edo, halakorik ezean, gune horietan garatutako jardueren kudeaketarena.

c) Eskabidea aurkezten den unean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokion epigrafean alta emanda egotea eta jarduera eszeniko edo musikalen garapenarekin bat datorren xede edo helburu soziala izatea.

2.– Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaz gain, erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, bai dirulaguntza ematen denean, bai ordaintzen denean.

Dirulaguntzak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela automatikoki egiaztatuko du deialdi hau kudeatzen duen organoak, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginarekin bat etorritz.

b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

3.– Erakunde onuradunen ardura izango da proiektua garatzea eta gastua gauzatzea, aurkeztutako aurrekontuaren arabera.

4.– Erakunde onuradun bakoitzak pertsona bat izendatu beharko du proiektua eta elkarrizketa koordinatzeko, deialdi honen ondorioetarako.

5.– Honako hauek ezin izango dituzte agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak jaso:

a) Izaera publikoko erakundeak eta, nolana ere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 7.4 artikuluan definitutako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeak.

b) Laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penala duen pertsona edo erakunde eskatzailea, edo horretarako ezgaitzen duen legeko debekuren bat duena, sexu-bereizkeriagatik debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritz.

c) Berdintasun-plana indarrean ez daukaten enpresak, baldin eta Estatuko araudiaren arabera horretara behartuta badaude, ez eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri izana egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (1997ko azaroaren 11ko Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina).

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako gainerako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.

e) Berreskuratzeko agindu baten menpe dauden erakundeak, Europar Batasuneko Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela.

f) Krisian dauden enpresak, krisian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauetako definizioari jarraikiz (EBAO C249, 2014ko uztailaren 31koa).

g) 2021ean arte eszenikoen eta musikalen azpiegiturak modernizatzeko eta modu iraunkorrean kudeatzeko dirulaguntzen deialdian onuradun izan diren erakundeak.

h) Kontseiluak c24.i1) neurrirako Espainiako SSEParen (Council implementing decision – CID) ebaluazioa onartzeari buruz hartutako betearazpen-erabakian aurreikusitakoaren arabera, ingurumen-legeria nazionala eta dagokion EBkoa betetzen duten jarduerak egiten dituzten pertsonak edo erakundeak baino ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradun izan. Berriaz baztertzen dira jarduera hauetakoren bat egiten dutenak:

– Erregai fosilekin lotutako jarduerak, haien ondorengo erabilera barne.

– EBko isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren esparruko jarduerak, berotegi-efektuko gasen isuriak dagozkien erreferentzia-parametroen azpitik egongo ez direla aurreikusten bada.

– Hondakinen zabortegiekin eta erraustegiekin lotutako jarduerak.

– Epe luzera hondakinak ezabatzeak ingurumenari kalte egin diezaiokeen jarduerak.

5. artikulua.– Aurkeztu beharreko proiektuen betekizunak.

1.– Proiektuetan aurreikusitako jarduerak agindu honen 1. artikuluan adierazitako helburuetara egokitu beharko dira, eta 2023ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era arte garatu beharko dira. Beraz, diruz lagundu daitezkeen gastuak aldi horretan egindakoak izango dira.

2.– Inbertsio-proiektuen xede diren azpiegiturek honako hauek bete beharko dituzte:

a) Dirulaguntzen xede diren azpiegiturek zehatz identifikatuta egon behar dute, kokapenari eta izenari dagokienez, eta honako eremu hauetako batean edo gehiagotan jarduera izatea egiaztatuta behar da:

a.1.– Zuzeneko arteen erakusketa: antzokiak, auditoriumak, zirku-karpak eta musika-aretoak.

a.2.– Entsegu eta ekoizpen eszenikoa: antzerkia, dantza, zirkua eta diziplina anitzak.

a.3.– Musika-entsegua eta/edo musika-ekoizpena.

b) Proiektuaren xede den espazioaren urteko jarduera-egunen 45etik gorako erabilera profesiona egiaztatzea, aipatutako kategorietako batean. Ondorio horietarako, 2021eko uztailaren 1etik 2022ko ekainaren 30era bitarteko aldia hartuko da erreferentziatzat.

3.– Deialdi honetatik kanpo geratzen dira beste jarduera batzuetarako soilik erabiltzen diren guneak eta, nolahi ere, artikuluan honen 2.b) apartatuan aipatutako erabilera-betekizuna egiazta-zerik ez dutenak.

4.– Inbertsio-proiektu guztiek honako ohar hauen arabera aurrekontua izan beharko dute:

a) Aurrekontua orekatua izan beharko da aurreikusitako gastuen eta diru-sarreraren artean, eta horien artean deialdi honetan eskatutako zenbatekoa sartu beharko da.

b) Gastuen atalean, proiektua garatzeko behar diren elementu edo ekintzen kostua banakatuko da. Deialdi honen 7. artikuluan diruz lagundu daitezkeen gastuak ezartzen dira.

c) Aurreikuspen-gastuek ezin izango dute inolaz ere merkatuaren balioa gaintu, eta artikuluan honen lehenengo puntuan adierazitako denbora-eparearen barruan gauzatu beharko dira.

d) Diru-sarreraren atalean:

d.1.– Proiektua garatzeko aurreikusitako diru-sarrera guztien jatorria banakatuko da.

d.2.– Eskatutako laguntzak ezingo du gaintu gastuen aurrekontu osoaren % 80, ezta 6.2 artikuluan aurreikusitako gehieneko dirulaguntza ere. Beraz, proiektuaren % 20, gutxienez, funts propioekin beste ekarpen publiko edo pribatu batzuekin finantzatu behar da, edozelan ere Europar Batasuneko bestelako egitura-funtsekin izan ezik kanpo direlarik.

d.3.– Deialdi honetan eskatutako laguntzarekin zerikusirik ez duten ekarpen publiko edo pribatuak gauzatan egin ahal izango dira, salbuespen gisa, baldin eta ekarpen hori egin duen erakundearen ziurtagiria aurkezten bada. Ziurtagiri horretan, emandako ondasun eta zerbitzuen izaera eta merkaturako prezioen arabera balorazio ekonomikoa zehaztuko dira. Ez dira gauzatzeko ekarpenzat hartuko erakunde onuradunak berak edo talde bereko edozein enpresak egiten dituenak.

d.4.– Laguntza honetatik kanpoko finantzaketa-zatia beste laguntza edo babes batzuk jasotzeko aukeraren estimazioan oinarritzen bada, horiek ez lortzeak ez du salbuetsiko proiektua eskabidea egiteko unean aurreikusitako baldintzetan garatzeko betebeharririk.

5.– Proiektuek ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (DNSH printzipioa) eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean etiketatze berde eta digitalerako ezarritako baldintzak errespetatu beharko dituzte. (IV. eranskina).

Kultura-industriaren birbalorizazioari buruzko C24 osagairako, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean jasotakoaren arabera, etiketatze berde eta digitaleko koefiziente hauek esleitu dira: % 0 eta % 29,5, hurrenez hurren.

6. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura eta laguntzen mugak.

1.– Deialdi honen kontura ematen diren dirulaguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira. Horretarako, aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, 14. artikuluan ezarritako balorazio- eta esleipen-prozedura eta -irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko, deialdiari esleitu-tako kredituak agortu arte, hala badagokio:

2.– Proiektu bati gehienez ere 150.000 euroko dirulaguntza emango zaio.

## 7. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.– Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango dira 5.1 artikuluan ezarritako egikaritze-epean proiektuaren garapenarekin zuzenean lotutako gastuak, betiere hurrengo ataletan adierazten diren tipologiaren eta mugen arabera.

### a) Inbertsio errealeko gastuak.

Inbertsio-gastuak kostuaren % 100eraino lagundu ahal izango dira diruz, BEZa kenduta (artikulu honen b.5 puntuan aurreikusitakoa izan ezik) eta, nolahi ere, 5.4.d.2 eta 6.2 artikuluetan adierazitako mugen arabera beti.

Izaera adierazgarriarekin eta ez mugatzailearekin, eta kontabilitate-plan orokorra onartzen duen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren arabera, gastuen tipologia horri dagokionez, honako hauek sartzen dira:

#### a.1.– Ibilgetu ukiezinak:

- Jabetza industrial eta teknologia-transferentziak.
- Aplikazio informatikoak.

#### a.2.– Ibilgetu materialak:

- Proiektuaren xede diren azpiegituren egokitzapen arkitektonikorako obrak.
- Instalazio teknikoak.
- Makinak.
- Tresneria.
- Bulegoko ekipoak.
- Informazioa prozesatzeko ekipoak.

### b) Mugekin diruz lagun daitezkeen gastuak.

Proiektuaren gastu-aurrekontuak honako gastu-tipologia hau jaso ahal izango du, betiere egin beharreko inbertsioarekin zuzeneko lotura badute eta, finantzaketari dagokionez, kasu bakoitzean adierazten diren mugak edo bazterketak errespetatzen badira. Nolanahi ere, diru-sarreraren atalean berariaz adierazi beharko da finantzaketa osoaren jatorria (deialdiaren 5.4.d.1 artikuluan adierazten den bezala):

b.1.– Inbertsioari lotutako aholkularitza-gastuak. Deialdi honen bidez, kostuaren % 20ra arteko dirulaguntzak baino ezin izango dira eman.

b.2.– Proiektuaren publizitate, komunikazio eta zabalkunde komertzialeko gastuak. Deialdi honen bidez, kostuaren % 10eraino baino ezin izango da diruz lagundu.

b.3.– Erakundearen beraren langile-gastuak, proiektuarekin lotutako zeregin zehatzei dagokionez: deialdi honen bidez, kostuaren % 15eraino baino ezin izango da diruz lagundu.

b.4.– Ekipoak alokatzea: erosteko aukera barne hartzen duen finantza-errentamenduko kontratua bada eta aukera hori exekutatu bada soilik, eta enpresaren aktiboaren zati bihurtzen bada, proiektua gauzatzeko epearen barruan.

b.5.– BEZaren zenbatekoa: kenkaria legez bidezkoa ez dela egiaztatzen duten erakundeen kasuan bakarrik.

2.– Oro har kanpoan utzitako gastuen tipologia.

Oro har kanpoan utzitako gastuak ezin izango dira deialdi honetako laguntzen bidez finantzatu, eta inola ere ez dira proiektuaren gastu-aurrekontuan jaso beharko; honako hauek, zehazki:

a) Lokalen alokairua.

b) Ekipoak alokatzea, aurreko ataleko b.4 puntuan aurreikusitakoa izan ezik.

c) Azpiegituraren funtzionamendu-gastu arruntak (telefonoa, energia elektrikoa, posta-komunikazioak, mezularitza, gestoria, eta abar).

d) Azpiegiturak mantentzeko inbertsio-gastuak.

e) BEZ kengarriaren zenbatekoa, aurreko paragrafoko b.5 puntuan aurreikusitakoa izan ezik.

f) Ibilgailuak erostea.

g) Finantza- eta amortizazio-gastuak.

h) Tributuak.

3.– Azpikontratazioa: erakunde onuradunek hirugarrenekin hitzartu ahal izango dute diruz lagundutako jarduera gauzatzea, % 100eraino, azpikontratu guztien prezioak batuz, DLOren 29.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldez aurretik baimena eman beharko da eta kontratua idatziz egin beharko da, azpikontratazioa dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa bada eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, DLOren 29.3 artikuluan adierazten den bezala. Ez da azpikontrataziotzat hartuko onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

Organo emaileak gorde egin beharko ditu balizko kontratisten eta azpikontratisten identifikazio-datuak, funtsen azken jasotzaile gisa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera. Era berean, kontratistak edo azpikontratistak egonez gero, erakunde onuradunek, une egokian, HEZINak aurkeztu beharko dituzte.

4.– Nolanahi ere, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko dute onuradunek. Horretarako, diruz lagundu daitezkeen gastuak diruz lagundutako jarduerarako behar-beharrezkoak direla egiaztatu beharko dute, gastu horiek merkatuaren balioarekin bat datozela eta, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokor horren 31.3 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean egonez gero, aurreikuspen horiek beteko dituztela.

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta aurkeztuko dira, apartatu honetan adierazitako helbidearen bidez.

Eskabide-inprimakia, izapidetzeko moduari buruzko zehaztapenekin batera, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: [www.euskadi.eus/zerbitzuak/1207402](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1207402)



Eskabide elektronikoaren ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikatzeko eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/egiaztagiri-elektronikoak>

4.– Izapidetze elektronikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalorde-teen Erregistroan aldeztu aurretik inskribatutako ordezkariaren bidez egin ahal izango da, helbide honen bidez: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

5.– Erakunde eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta harekin batera doazen egiaztagiriak. Era berean, eskabidearen ondoriozko jarduketetan eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2 a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6.– Gehienez ere eskabide bat aurkeztu ahal izango da titular bakoitzeko. Titular berak eskaera bat baino gehiago egiten badu, aurkeztutako lehen eskaera ebaluatuko da, erregistro-dataren arabera, eta gainerakoak baztertutzat joko dira.

9. artikulua.– Betekizunak egiaztatzea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Erakunde eskatzaileari buruzko dokumentazioa.

Erakunde eskatzaileek honako dokumentazio hau egiaztatu edo aurkeztu beharko dute, beren profilaren arabera:

a) Identifikazioa eta erregistroa:

– Administrazio honi dagozkion erregistroetan inskribatutako erakundeek eskabidean adierazi beharko dute zer erregistrotan dauden inskribatuta, eta ez da beharrezkoa izango inskripzio hori egiaztatzea.

– Administrazio hau ez den beste erregistro batean inskribatutako erakundeek erakundearen legezko eraketa egiaztatu beharko dute, izaera juridikoaren arabera, baita ordezkariaren nortasuna ere, eta ordezkari-tasun-ahalorde nahikoa justifikatu beharko dute, honako hauen bidez:

b) Eraketa-eskritura eta estatutuak, eta dagozkien erregistro publikoetan inskribatuta daudela egiaztatzen duen agiria.

c) Identifikazio fiskaleko zenbakia egiaztatzeko txartela.

d) Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren nortasuna egiaztatzea, bai eta hark duen ordezkari-tasun-ahalordea egiaztatzea ere.

e) EJZn alta ematea, 4.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

f) Lokalaren titulartasuna eta/edo jardueraren kudeaketa egiaztatzea:

– Proiektuaren xede den azpiegituraren erakunde jabeak: jabetza-eskritura.

– Bestela, erakunde titularrak sinatutako agiria aurkeztu beharko dute, eskatzaileari programa-zioa kudeatzeko eta eskaeraren xede den proiektua gauzatzeko emandako gaitasunari buruzkoa.

g) Deialdi hau kudeatzen duen organoak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, eskatzaileen baimenik behar izan gabe, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginarekin bat etorritik. Egiaztapen hori dirulaguntza ematen den unean eta dagozkion ordainketak egiten diren unean egingo da.

h) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, pertsona edo erakunde interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen agiriak ez aurkezteko. Legerian ezarritakoari jarraikiz, Administrazioak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, betiere pertsona edo erakunde interesdunak horren aurka egiten ez badu.

2.– Eskabidearen xede den proiektuari buruzko dokumentazioa:

a) Proiektuaren memoria, eduki hauekin:

– Helburuak, aurreikusitako jarduketak eta garapen-kronograma.

– Proiektuaren xede den espazioan garatutako kultura-jardueraren profila eta ibilbidea. 2021eko eta 2022ko jardueren xehetasunak.

b) Formularioak (eredu normalizatuak, euskadi.eus helbidean):

– 1 formularioa : Erakunde eskatzaileari buruzko datuak: egitura, jarduera-profila deialdi honi dagokionez eta urteko aurrekontua. Proiektuaren sintesia eta datu orokorrak.

– 2 formularioa: Proiektuaren gastu eta sarreraren aurrekontu banakatua.

c) Bidezkoa den edo aurkeztu nahi den dokumentazio gehigarria (teknikoa, grafikoa, ikus-entzunezkoa...).

d) Hala badagokio, eranskin gehigarria, eskabidearen xede den proiektuarekin zerikusia duten hitzarmen, akordio, lankidetzak edo babesletzei buruzko dokumentazioarekin.

3.– Europar Batasunaren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko dokumentazio gehigarria.

Aurreko apartatuetan zerrendatutako agiriez gain, erakunde eskatzaileek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte (eranskinetako eredu normalizatuak, euskadi.eus helbidean):

a) Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko -PR TR- jarduerak gauzatzeko konpromisoaren adierazpena (IV. eranskina).

b) Interes Gatazkarik ez dagoela adierazten duen adierazpena (V. eranskina).

c) Iruzuraren aurkako Neurrien Plana, dirulaguntza eman duen administrazioak 2022ko apirilaren 13ko EHAAn (74. zk.) argitaratua, baldintzarik gabe eta inolako erreserbarik gabe onartzeko adierazpena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendaria- ren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenari jarraikiz (VI. eranskina).

d) Implikatutako administrazio publikoen artean datuak lagatzea eta tratatzea onartzen duen adierazpena, funtsen erabilera ikuskatu eta kontrolatzeko, indarrean dagoen araudiaren arabera (VII. eranskina).

e) Europako Batzordearen, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiaren, Europako Fiskaltzaren eta agintari nazional eskudunen sarbi-

derako berariazko baimena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (aurrerantzean, Finantza Erregelamendua) 129. artikuluko 1. paragrafoan aitortzen zaizkien eskubideak baliatzeko; hori guztia Berreskuratzeko eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren arabera (VIII. eranskina).

Horri dagokionez, ohartarazi behar da erakunde onuradunen datuak Titulartasun Errealen Erregistroan sartuko direla. Erregistro horretara gai horretan eskumena duten administrazioak sartu ahal izango dira, eta informazioa Europako Funtsen sistemari laga ahal izango zaio.

10. artikulua.– Erantzukizunpeko beste adierazpen batzuk.

Honako betebeharrak hauek betetzen direla egiaztatuko da eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez:

– Edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik, helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatu eta, hala badagokio, jaso direla jakinaraztea.

– Erakunde eskatzaileak ez izatea ezarrita laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera sexu-gatiko bereizkeriagatiko debekuak barne.

– Erakunde eskatzailea ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan jasotako gainerako debekuetako batean ere.

– Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela adieraztea.

– Adieraztea bete egiten direla azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.5 artikuluan ezarritako baldintzak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen azken xedapenetako laugarrenak emandako idazketan.

– Ez egotea sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako itzulketak- edo zehapen-prozeduretan.

11. artikulua.– Laguntzen kudeaketa.

1.– Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzea. Era berean, zuzendaritza horrek diruz lagundutako proiektuen kontrola eta jarraipena egingo du, eta, horretarako, egoki irizitako ikuskapenak egin ahal izango ditu, behar bezala gauzatzen direla bermatze aldera.

2.– Organo kudeatzaileak egoki irizitako egiaztapen guztiak egingo ditu prozedura osoan iruzurrik ez dagoela bermatzeko. Hala, beste jarduketak batzuen artean, kudeatzaileek interes-gatazkarik ezaren adierazpena sinatuko dute (HEZI); ebaluazioa, inpaktua eta arrisku-probabilitatea egingo dituzte (interes-gatazken testa), eta adierazleen katalogoaren egiaztapen-zerrenda egingo dute, iruzurrik dagoen zehazteko (22. artikulua eta III. eranskina - Bandera gorriak).

## 12. artikulua.– Aurkeztutako eskabideko akatsak zuzentzea.

1.– Eskabidea izapidetzea onartzeko eskatzen diren agirietatik baten bat falta dela edo aurkeztutakoetan forma-akatsak daudela ikusiz gero, do eskabidea baloratzeko aurkeztutako dokumentazioan akatsak aurkituz gero, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzen dezala edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzala, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, bere eskubideari uko egin diola ulertuko dela.

2.– Pertsona juridikoek eskabidea aurrez aurre aurkezten badute, administrazio publikoek interesdunari eskatuko diote zuzen dezala, modu elektronikoa aurkeztuta. Ondorio horietarako, zuzenketa egin den eguna hartuko da eskabidea aurkezteko datatzat.

3.– Zuzenketa-fasea amaitu ondoren, organo kudeatzaileak aurkeztutako eskabideak eta dokumentuak aztertuko ditu, 3. artikuluan ezarritako deialdiaren baldintza orokorrak betetzen direla egiaztatuko du kasuan-kasuan, eta Balorazio Batzordearen esku jarriko du aurkeztutako eskabideen zerrenda, onartzeko irizpideak betetzen direla adierazita, bai eta baloratu beharreko proiektuei dagozkien agiriak ere.

## 13. artikulua.– Proiektuak baloratzeko batzordea.

1.– Proiektuen ebaluazioa Balorazio Batzorde batek egingo du. Batzorde hori honako kide hauek osatuko dute:

a) Lehendakaria: Kultura Sustatzeko zuzendaria.

b) Batzordekideak: musikan eta arte eszenikoetan, teknologia digitaletan, ekonomia zirkularran edota kudeaketa aurreratuan jarduten duten hiru eta bost profesional artean.

2.– Batzordeko idazkaritza-lanak Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari batek egingo ditu, eta hitza izango du, baina botorik ez.

3.– Balorazio Batzordearen osaera emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bilatuko da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako irizpideekin bat etorritik.

4.– Balorazio Batzordearen osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Kulturako sailburuordearen ebazpen baten bidez, batzordea eratu aurretik, edozein interesdunek errefusatzeko eskubidea erabil dezan, legez ezarritako kasu eta baldintzetan.

5.– Honako hauek izango dira Balorazio Batzordearen eginkizunak:

a) Proiektuek deialdiaren xedea eta 5. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituzten egiaztatzea, eta aurkeztutako proiektuak 14. artikuluan araututako irizpideen arabera alderatzea.

b) Kulturako sailburuordeari balorazio-txostena helaraztea, eduki hau izango duena:

b.1.– Baloratutako proiektuen zerrenda eta balorazio-irizpide bakoitzean lortutako puntuazioa, diruz lagunduko diren erakundeak eta proiektuak identifikatuta, eta proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa.

b.2.– Ukatutako pertsona, erakunde eta proiektuen zerrenda eta haiek baztertzeko arrazoiak, onartu ez diren erakunde eta proiektuak eta ez onartzeko arrazoiak zehaztuta.

6.– Balorazio Batzordeak egoki iritzitako txosten eta iritzia eskatu ahal izango ditu esleituta dituen eginkizunak betetzeko. Halaber, beharrezkotzat joz gero, organo kudeatzailearen bitartez, egoki iritzitako argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei.

7.– Balorazio Batzordearen funtzionamendua Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluaren kide anitzeko organoentzat ezarritako araubidearen arabera izango da.

14. artikulua.– Dirulaguntzak baloratzeko eta esleitzeko irizpideak.

1.– Aurkeztutako inbertsio-proiektuak honako bi atal hauetan jasotako bi irizpideen arabera baloratuko dira:

A) atala.– Proiektua deialdiaren 1. artikuluan aurreikusitako helburuetara egokitzea (70 puntu, gehienez); zehazki:

A.1.– Proiektuen kalitatea (gehienez 50 puntu), honako hauen arabera:

A.1.1.– Azpiegituraren abiapuntuarekiko ahalmen eraldatzailea (gehienez 15 puntu), baremo honen arabera:

– oso txikia (gehienez 5 puntu): oso oinarrizkoak diren jarduerak, egungo egoeran eragin txikia dutenak;

– ertaina (5 puntu baino gehiago eta 10eraino): jarduera egonkorak, egungo egoeran eragin nabaria dutenak;

– handia (10 puntu baino gehiago eta 15eraino): egungo egoerarekiko erabateko eraldaketa dakarten jarduketak integralak.

A.1.2.– Proiektuaren anbizioa (gehienez 15 puntu), honako hauen arabera:

– teknologia berriak eskuratzea (5 puntu);

– kudeaketa-eredu berriak ezartzea (5 puntu);

– hainbat erakunde eta azpiegituraren arteko lankidetzak eraginkorra sarean (gehienez 5 puntu: 2 azpiegitura, 3 puntu, eta puntu bat gehiago gehigarri bakoitzeko).

Horretarako, lankidetzak horren oinarri diren tresna zehatzei buruzko erreferentziak aurkeztu beharko dira.

A.1.3.– Proiektuaren berrikuntza, aurreikusitako helburuei dagokienez (gehienez 10 puntu).

Eraginaren arabera hartuko da kontuan: Euskadin (gehienez 5 puntu), Espainiako Estatuan (gehienez 7 puntu) eta Europan (gehienez 10 puntu).

A.1.4.– Proiektuaren plana: jardueren diseinua, plangintza eta kronograma (gehienez 10 puntu).

A.2.– Proiektuaren xede den espazioan garatzen den kultura-jarduera profesionalaren balorazioa (20 puntu), honako hauen arabera:

A.2.1.– Ibilbidea eta eragin orokorra dagokion kultura-sektorean eta kokatuta dagoen ingurune geografikoan (gehienez 10 puntu).

A.2.2.– 2021 eta 2022 bitartean egindako jardueraren balorazioa (gehienez 10 puntu).

B) atala.– Proiektuaren planteamendu ekonomikoa eta bideragarritasuna (30 puntu, gehienez).

B.1.– Deialdiaren helburuetara egokitzea, aurkeztutako aurrekontuaren gauzatzearen xehe-tasun-maila eta plangintza (gehienez 15 puntu).

B.2.– Erakundeak proiektatutako jarduera garatzeko eta finkatzeko duen antolaketa-gaitasuna (gehienez 5 puntu).

B.3.– Erakundearen inbertsio-ahalegina aurrekontuarekiko (gehienez 5 puntu).

B.4.– Autofinantzaketa-maila (gehienez 5 puntu).

2.– Baztertu egingo dira atal bakoitzean balorazio-baremoan gutxienez % 50eko puntuazioa lortzen ez duten proiektuak, eta ezingo dira hautaketan sartu, ezta bien batura osoan puntuazioaren % 60ra iristen ez direnak ere.

3.– Esleitu beharreko dirulaguntzen kalkulua.

Eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko, prozedura honi jarraituko zaio:

– Hobekien puntuatutako proiektuari eskatutako zenbatekoaren % 100 emango zaio, eta ondoren sailkatutakoei, aipatutako erreferentziekiko proportzionalak diren zenbatekoak; kopuru horiek inoiz ez dira izango eskatutako zenbatekoaren % 80 baino txikiagoak.

– Hala badagokio, kalkulu hori egin ondoren aplikatu beharreko ehunekoa baino kopuru txikiagoa ateratzen bada, kopuru hori proportzionalki birbanatuko da diruz lagundutako proiektuen artean, betiere 5.4.d.2) eta 6.2 artikuluetan aurreikusitako mugak errespetatuz.

15. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Balorazio Batzordeak egindako txostena ikusita, Kulturako sailburuordeak deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen ebazpena emango du.

2.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei. Jakinarazpen hori gorabehera, ebazpen horien edukia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Lehenengo egin den jakinarazpenaren data hartuko da jakinarazpen-datatzat. Ebazpena bide elektronikoz jakinaraziko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>

3.– Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa interesdunei jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko 8.1 artikuluan aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota ebazpenik jakinarazi ez bada, dirulaguntzaren eskabidea eze-tsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

4.– Lehenengo paragrafoan aipatzen den ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabete epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

5.– Erakundea izapidetzen ari den itzulketa-prozeduraren batean baldin badago, prozedura hori amaitzearen baldintzapean geratuko da dirulaguntza ematea, eta, itzulketa-prozedura amaitu ondoren, entitatea itzultzera behartuta baldin badago, dirulaguntza emateko baldintza izango da obligazioa duen erakundeak zorra borondatezko aldi ordaintzea, atzeratzea edo bermatzea, edo

itzulketa-ebazpenaren aurka egiteagatik etetea erabakitzea. Kasu horietatik kanpo, erakundeak ezin izango du erakunde onuradun izan, baldin eta ez baditu egunean dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilletako Erregelamendu Orokorra onartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian xedatu-takoarekin bat etorritz.

#### 16. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1.– 5.4 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritz, deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako helburu bererako eman ditzakeen beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, Europar Batasuneko beste egitura-funts batzuk izan ezik, betiere gainfinantzaketarik sortzen ez bada.

2.– Beste erakunde batzuek emandako laguntzengatik gainfinantzaketarik gertatuz gero, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

#### 17. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

##### 1.– Betebehar orokorrak.

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean pertsona edo erakunde onuradunek dirulaguntzari berariaz uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diruz lagundutako proiektua gauzatzea, deialdian aurkeztutako baldintzen arabera.

c) 4.1.a) artikuluan aipatutako jardueri dagozkien lanbide- eta lan-arloko betebeharrak eta araudiak betetzea.

d) Helburu bererako beste laguntza edo dirulaguntzarik lortuz gero estatuko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, horren berri ematea dirulaguntza eman duen organoari.

e) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dirulaguntzen zertarakoa fiskalizatzeko edo kudeatzeko eskatzen duten informazio guztia ematea.

f) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren babesberariaz aipatzea eta artikuluko honetako 2.f apartatuan adierazitako komunikazio-betebeharrak betetzea.

g) Deialdi honen kontura emandako dirulaguntzekin finantzatutako esku-hartzeen xede diren ondasunak helburu jakin baterako erabiltzea, hau da, erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, bost urterako, eta gainerako ondasunen kasuan, bi urterako. Inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, inguruabar hori eskritura publikoan jaso beharko da, emandako dirulaguntza adierazita, eta inguruabar hori erregistroan inskribatzeko eskatu beharko da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.4 artikuluko b) letran eskatzen den moduan.

h) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan jasotako betebeharrak.

i) Finantzaketaren jatorria dela eta, administrazio emakida-emaileak nahiz gainerako agintari nazional eta europarrek ezar ditzaketen betebeharrak guztiak betetzea, eta, bereziki, hurrengo apartatuan jasotako betebeharrak espezifikoak.

2.– Onuradunen betebeharrak espezifikoak, Europar Batasuneko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa finantzatzeari dagokionez.

Erakunde onuradunek, gainera, Europar Batasuneko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak datozen funtsen finantzaketari buruzko betebeharrak hauek (Estatukoak eta Europakoak) bete beharko dituzte:

a) DNSH – Do Not Significant Harm – Printzipioa (ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa) erabat betetzen dela bermatzea, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia lanean, Espainiako berreskuratze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluarren Betebeharrak Erabakian (Council Implementing Decision – CID) aurreikusitakoaren arabera, baita irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikuluan ere. Agindu horren bidez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana eta hura garatzeko araudia kudeatzeko sistema eratzen da, proiektuen diseinuaren eta gauzatzearen fase guztietan eta jarduera bakoitzerako banaka.

b) Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez dagoela bermatzea, bai eta dirulaguntza ematen duen administrazioak onartutako iruzurraren aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe eta inolako erreserbarik gabe onartzea ere. Plan horren xedapenak oso-osorik bete beharko dira, bai eta autonomia-erkidegoko, estatuko eta Europako araudia ere, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitu, antzeman eta zuzentzeari dagokionez; era berean, Europar Batasunaren finantza-interesei buruz egiten dituzten erabakiei jarraitu beharko zaie.

c) Europako Batzordeak, Iruzuraren Kontrolerako Europako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak onartzea. Horretarako, organo horiei emango zaie dirulaguntzari buruz eskatutako informazio guztia, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan xedatutakoa betez.

d) Europako Batzordeari, Iruzuraren aurkako Kontrolerako Europako Bulegoari (OLAF), Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari baimena ematea Finantza Erregelamenduko 129. artikuluko 1. paragrafoan aitortzen zaizkien eskubideak egikaritzeko, eta ordaindutako funtsen azken jasotzaile guztiak behartzea berreskuratze- eta erresilientzia-planeko erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako, edo erakunde guztiei edo gainerako erakundeek dagozkien inbertsio-proiektuetarako.

e) Jasotako funtsak aplikatzearen egiaztagiriak zaindu eta gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrolatzeko jarduketak egin ahal izan daitezen, bost urteko epean, edo, finantzaketaren zenbatekoa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, hiru urteko epean, Finantza Erregelamenduaren 132. artikuluan eta Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren 22.2.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

f) Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezarritako komunikazio-betebeharrak betetzea. Bereziki, inbertsioak garatzen dituzten jardueri buruzko informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kartelak, plakak, argitalpen inprimatu eta elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, web-orriak, prentsako iragarkiak eta txertaketak, ziurtagiriak, etab.), honako logo hauek sartu beharko dira:

– Europar Batasunaren ikurra;



– Batasunaren ikurrarekin batera, «Europar Batasunak (Next Generation EU) finantzatua» testua sartuko da.

– Kontuan hartuko dira 821/2014 Betearazpen Erregelamenduaren II. eranskinean ezarritako arau grafikoak eta kolore normalizatuak.

g) Beraien identifikazio-datuak datu-base bakarrean sartzea, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

18. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Emandako dirulaguntzak honela ordainduko dira:

a) Lehenengo ordainketa aurreratua, diruz lagundutako zenbatekoaren % 75, dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren eta 17.1.a) artikuluan ezarritako epea igaro ondoren ordainduko da.

b) Gainerako % 25a 2024ko urtarrilaren 31 baino lehen ordainduko da, betiere, proiektuaren justifikazioa hurrengo artikuluan aurreikusitako baldintzetan onartu ostean.

2.– Pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu, ez da inolako ordainketarik egingo, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 34.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, erakundeak izapidetzen ari den itzulketa-prozedura bat badu, prozedura horren amaieraren baldintzapean geratuko da ordainketa, eta, itzulketa-prozedura amaituta, erakundeak itzultzeko betebeharra badu, ordainketa egin ahal izango da soilik baldin eta nahitaezko erakundeak zorra borondatezko epean ordaintzen badu, edo atzeratu eta bermatzen badu, edo dagokion itzulketa-ebazpena aurkaratzen denean etetea erabakitzen bada. Kasu horietatik kanpo, erakundeak erakunde onuradun izateko debekua izango luke, ez dituelako egunean dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketarako Erregelamendu Orokorra onartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren ildotik.

3.– Erakunde onuradunak bere banku-datuak aurkeztu edo eguneratu beharko ditu Eusko Jaur-laritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan. Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu ahal izango da, egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/altaterceros>

19. artikulua.– Justifikazioa: aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Ematen diren laguntzen azken justifikazioa Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan egingo da, jarduerak gauzatzeko epea amaitu eta hurrengo hiru hilabeteetan, betiere 2023ko azaroaren 30a baino lehen.

Halaber, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak finantzatutako proiektuarengatik dagokion informazioa eskatuko die interesdunei funtsen jatorriagatik egin beharreko jarraipena betetzeko. Higiezinetan egindako inbertsioak baldin badira, jarraipen horiek gauzatzeko, kasuan kasuko higiezina bisitatu ahal izango da, finantzatutako obren benetako aurrerapena egiaztatzearen.

2.– Laguntzen erakunde onuradunek proiektuaren gastu guztiak justifikatu beharko dituzte, ez bakarrik jasotako laguntzari dagokion zatia.

3.– Erakunde onuradun guztiek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Jardueraren amaierako memoria: diruz lagundutako proiektuan aurreikusitako jarduketan exekuzioari buruzko txostena eta hura gauzatu dela egiaztatzen duten materialak edo elementuak. Era berean, deialdi honetako 1. artikuluan aurreikusitako helburuen betetze-mailari buruzko ebaluazioa aurkeztu beharko da. Memoriak proiektuaren garapenean gertatutako edozein aldaketa jaso beharko du.

Funtsezko edozein aldaketa, hura hasi aurretik eskatu eta baimendu beharko da, proiektua amaitu baino hilabete lehenago gutxienez. Kasu horretan, justifikazio-memoriarekin batera baimentzeko ebazpena erantsi beharko da. Aldaketa horien ondorioz, ebazpen-organoak emandako laguntza berrikusi ahal izango da, eta, hala badagokio, ordaindu beharreko azken zenbatekoa egokitu.

b) Memoria ekonomikoa, erakundearen legezko ordezkariak datatua eta sinatua, euskadi.eus webgunea agertzen den ereduari jarraituz. Memoria horrek honako hauek jasoko ditu:

b.1.– Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen eta diru-sarreraren balantzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

b.2.– Diruz lagundutako proiektua gauzatzeko egindako gastuak justifikatzen dituzten agiri guztien zerrenda, bai eta proiektua gauzatzeko diru-sarrerena ere. Gastu bakoitzeko, hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data zehaztu beharko dira.

c) Proiektuaren garapenean izandako gastuak justifikatzen dituzten egiaztagirak eta fakturak.

d) 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluko sei ingurumen-helburuak betetzeari ziburtagiriak; hauek dira ingurumen-helburuok:

d.1.– Klima-aldaketa leuntzea.

d.2.– Klima-aldaketara egokitzea.

d.3.– Baliabide hibridoaren eta itsas baliabideen erabilera iraunkorra eta babesa.

d.4.– Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.

d.5.– Atmosferaren, uraren edo lurzorua kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.

d.6.– Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea.

Horri dagokionez, diruz lagundutako proiektuaren tipologiaren eta irismenaren arabera, «DNSH printzipioa» betetzeari buruzko proba espezifikoa aurkeztu beharko dira («Kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoaren II. eranskina, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren arabera (2021/C 58/01): <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-Z-2021-70014>).

e) Dokumentu grafiko edo sustapen-elementu grafikoak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Next Europa funtsen babesa berariaz aipatzen dutenak, 17.2.f) artikuluan zehazten den bezala.

4.– Laguntza 60.000 eurotik beherakoa bada, justifikazio-kontu sinplifikatuaren modalitateari buruzko zuzendaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorren 75. artikuluan aurreikusitako moduan justifikatuko da; nolana ere, aurreko paragrafoko d) letran aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

5.– Justifikazioak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dituzte, agindu honen 8.2 artikuluan adierazitako helbide elektronikoan sartuta. Horretarako zehaztapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan daude eskuragarri, artikulua berean adierazitako helbidean.

6.– Era berean, artikulua honen 1. paragrafoan adierazitako helbururako, hiru hilean behin, proiektuen jarraipena egiteko dokumentazio nahikoa eskatuko da, honelaxe:

a) Proiektua gauzatzeari, neurriak ezartzeari eta mugarriak eta helburuak lortzeari buruzko informazioa.

b) Kostu errealak zenbatetsiarekiko izan ditzakeen desbideratzei buruzko informazioa, inbertsio osoari dagokionez eta hura osatzen duten neurrietako bakoitzeko.

7.– Bereziki, funtsen erabilera ikuskatu eta kontrolatzeko, administrazio emaileek datu-kategoria harmonizatuak eskatuko dituzte formatu elektronikoan, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz.

20. artikulua.– Aldatzeko ebazpena.

Dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da, baldin eta dirulaguntza emateko kon-tuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere dirulaguntzaren xedea betetzat jotzen bada–, eta, hala badagokio, beste edozein erakunde publiko edo pribatuk aldi berean beste dirulaguntza edo laguntza batzuk ematen baditu. Horretarako, Kulturako sailburuordeak dagokion likidazio-ebaz-pena emango du, emandako dirulaguntzen zenbatekoak doitzeko.

21. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Honako hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako dirulaguntza osoa edo haren zati bat agindu honetan aurreikusitakoez bestelako jardueretarako erabiltzea.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

c) Dirulaguntzaren likidazio-ebazpenean adierazitako zenbatekoa ez itzultzea, hala badagokio, horretarako ezarritako epean.

d) DNSH printzipioa edo klima-etiketatzeko ez betetzea.

e) Nahitaez bete beharreko beste edozein ez betetzea, dirulaguntzei buruzko xedapenetan oro har hala ezarrita egoteagatik.

2.– Ez-betetze partzialen kasuan, itzuli beharreko zenbatekoa finkatzeko, proportzional-tasun-printzipioa aplikatuko da, eta aintzat hartuko da ez-betetze hori nabarmen hurbiltzea erabat betetzera eta onuradunek argi eta garbi egiaztatzea beren konpromisoak betetzera bideratutako jarduna.

3.– Horrelako kasuren bat gertatu dela egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, Euskal Auto-nomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurre-kontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

22. artikulua.– Iruzur, ustelkeria eta interes-gatazken arriskuari aurrea hartzea.

1.– Balizko onuradunak hautatzeko prozesuan edo baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozesuetan parte hartzen duten pertsonak deklaratuko dute ezagutzen eta onartzen dituztela, osorik eta inolako erreserbarik gabe, 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartutako «Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko exijitutako iruzurraren aurkako betekizunak, interes-gatazkak, finantzaketa bikoitzak eta estatuari eta ingurumenari egingandako kalte ez-esanguratsuko laguntzak betetzeko neurrien planaren baldintzak».

2.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, aipatutako iruzurraren aurkako neurrien plana ezagutu eta onartzera behartuta egongo dira dirulaguntza emateko eskumena duen organoaren arduraduna, dirulaguntzaren oinarriak eta/edo deialdia idazten dituzten langileak, bai eta eskabideak ebaluatzen dituzten adituak eta batzordeko kideak ere, jarduera horietan Administrazioari laguntzen eta aholkatzen dioten erakunde pribatuetako pertsona fisiko guztiak barne.

3.– Aurreko apartatuetan sartutako pertsonak Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) beteko dute, Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta (V. eranskina).

4.– Interes-gatazka eragin dezakeen arrazoiren bat duten agintariek eta langileek ez dute esku hartuko eragindako prozeduretan. Interes-gatazka egon daitekeela uste denean, ukitutako pertsonak idatziz jakinaraziko dio egoera hierarkian gorago dagoenari, eta kasuan kasuko zerbitzu juridikoek txosten bat egingo dute, kasuan kasuko erabakia hartzeko.

5.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, bere kabuz edo EJIGrekin lankidetzan (III. maila), interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurri egokiei buruzko auditoretza espezifikoak egin ahal izango ditu.

6.– Interes-gatazka bat hautematen denean, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren legezko arauen eta barne-erregelamenduen araberako neurriak hartuko dira. Era berean, edonola ere, interes-gatazkekako egoera argitaratu beharko da, gardentasun-printzipioa betetzeko.

23. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Zure datu pertsonalak tratatu eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: Kultura- eta sormen-arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Kultura Sustatzeko Zuzendaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba.

Telefonoa: 945 01 80 00

Webgunea: <https://www.euskadi.eus>

Helburua: kultura- eta sormen-sektoreko dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak kudeatzea.

Legitimazioa: interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzearen alde egindako misio bat betetzeko beharrezko tratamendua.

Hartzaileak: gai horretan eskumena duten administrazioak.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehatua web orri honetan kontsultatu dezakezu: <https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/eu/transparencia/024300-cap2-es.shtml>

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?Uri=CELEX:32016R0679&from=ES).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa ([www.boe.es/buscar/doc.php?ID=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?ID=BOE-A-2018-16673)).

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Laguntza-araubide hau Europako Batzordeak [Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamendua] ezarritako minimis arauari lotuta dago, eta, beraz, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak beharrezko mekanismoak ezarriko ditu agindu honetan aurreikusitako laguntza-araubidearen erakunde onuradunek minimis laguntzen kontzeptuan 200.000 eurotik gorako zenbatekorik jaso ez dezaten bermatzeko, uneko ekitaldi fiskala eta aurreko bi ekitaldi fiskalak kontuan hartuta.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egindako gastu-espeditenteen aurretiazko izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotako ondorioetarako, agindu honetako laguntzen ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko Aurrekontu Orokorretan kreditu egokia eta nahi-koa egotearen mende dago.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukurako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

## AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 2a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

## I. ERANSKINA

### ERALDAKETA DIGITALERAKO, INGURUMENERAKO EDO KUDEAKETA HOBETZEKO PROIEKTUAK GARATZEKO EGIN DAITEZKEEN INBERTSIOEN ZERRENDA

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen xede diren inbertsioek eraikina edo azpiegitura hobetzeko izan behar dute, eta haren ereduak, eraldaketa digitalari, ingurumenari edo kudeaketa-ereduari dagokienez. Jarraian zerrendatzen dira, adibide gisa, eremu horietan inbertsio espezifikoak behar dituzten jarduerak:

– Eraikinen modernizazioa, eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko 2018/844 (EB) Zuzentarauan jasotako jarraibideen arabera.

– Eraikinen klima-aldaketara egokitzea, irtenbide posibleak erabiliz, eraikinen tipologiaren arabera, hala nola landare-estalkiak, toldoak, itzaltze-eremuak, eta abar. Ur-aparatuak instalatuz gero, Europar Batasunean dagoen produktu-etiketa eramango dute.

– Ingurumena eta energia kudeatzeko sistemak ezartzea, edo, hala badagokio, aurretik ezarritako kudeaketa-sistemak berritzea edo eguneratzea, zehazki, honako hauek:

- ISO 14001 arauan oinarritutako ingurumen-kudeaketako sistema, dagoeneko ezarrita dagoen ISO 9001ean;

- ISO 14001 arauan oinarritutako ingurumen-kudeaketako sistema;

- EMAS Erregelamenduan oinarritutako ingurumen-kudeaketako sistema;

- Ekoscan 2004 Arauan oinarritutako ingurumen-kudeaketako sistema;

- UNE-EN ISO 50001 Energia Kudeatzeko Sistema.

– Produktu eta zerbitzuetan eduki digital kulturalak sortzeko eta hedatzeko jarduerak, Interneteko eduki digital kulturalen legezko eskaintzaren kalitatea handituz eta herritarrek haietarako duten sarbidea hobetuz.

– Espazioaren kudeaketa digitala, sorkuntza, ekoizpena, merkaturatzea, administrazioa, marketinga eta antzeko prozesuak barne.

– Elektronika, Informazio eta Komunikazioen Teknologia (EIKTak) sartzea.

– Sareko audio- eta komunikazio-sistema digitalak modernizatzea; argiztapen digitaleko sistemak; bideo digitaleko sistemak; makineria eszenikoaren kudeaketa digitaleko sistemak.

– Eszena- eta musika-esparruetako kudeaketa artistikoko eta ikuskizunen produkzioko tresnak eta sistema digitalak modernizatzea.

– Eraginkortasun eta egonkortasun energetikoko sistemak ezartzea; hondakinak murrizteko eta birziklatzeko sistemak.

– Publikoarekin komunikatzeko sistemak modernizatzea, teknologia berrien bidez.

– Arte eszenikoen eta musikalen azpiegiturak dinamizatze, egituratzeko eta nazioartekotzeko jardunak; besteak beste, Euskadiren irudia kultura- eta sormen-identitateetan erreferente gisa indartzen laguntzeko, Interneti eta teknologia berriei lotutako aplikazioen bidez.

– Azpiegituren modernizazioa, berrikuntza eta garapena eta kudeaketa.

## II. ERANSKINA

### ETIKA- ETA JOKABIDE-KODEA

Zein Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko enplegatu publikoek, zein onuradunek eta/edo dirulaguntza-programa honen onuradun izan den enpresak enplegatutako langileek, zein dirulaguntza gauzatzeko enpresak azpikontrata ditzakeen langileek (deialdiaren oinarriek horretarako aukera ematen badute) honako konpromiso hauek dituzte: herritarrei zerbitzatzea, interes orokorrak defendatzea eta esleitu zaizkien zereginak arduraz gauzatzea. Horretarako, Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa aintzat hartu eta errespetatu beharko dituzte.

Honako hauek dira haien jarduna arautzen duten printzipioak:

- a) Konstituzioa eta antolamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.
- b) Herritarren interes orokorrak betetzea izango dute xede eta inpartzialtasuna eta guztiontzako interesa lortzea helburu duten jarraibide objektiboak izango dituzte oinarri, printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jokabide guztiak erabat alde batera utzita, pertsonalak, familiartekoak, korporaziokoak nahiz bezeroei dagozkienak izan.
- c) Enplegatu publikoen kasuan, zerbitzuak ematen dituzten Administrazioarekin edo, onuradunaren kasuan, hautatuko proiektua gauzatu duten Administrazioarekin leialtasuna eta fede ona erakutsiko dute, bai eta nagusiekin, lankideekin eta herritarrekin ere.
- d) Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak errespetuko dituzte, eta saihestu egingo dituzte era guztietako bereizkeriak: jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo ingurubar pertsonal nahiz sozialak direla-eta sor litezkeenak.
- e) Abstenitu egingo dira interes pertsonala duten gaietan; baita jardun pribatu eta gainerako interes pribatu guztietan ere, enplegatu publikoen kasuan, betetzen ari diren lanpostu publikoarekin eta, onuradunaren kasuan, proiektuaren xedea betetzearekin interes-gatazka sortzeko arriskua izan badezakete.
- f) Ez dute bereganatuko betebeharrak ekonomikorik edo ezingo dute esku hartu finantza-eragiketetan, ez dute bereganatuko ondare-betebeharrak edo ezingo dute esku hartu negozio juridikoetan pertsona fisikoekin edo juridikoekin, baldin eta bereganatze horrek interes-gatazka eragin badezake bere lanpostu publikoa betetzearekin, enplegatu publikoen kasuan, edo proiektua gauzatzearekin, onuradunaren kasuan.
- g) Ez dute pertsona fisiko nahiz juridikoengandik mesede-traturik onartuko, ezta bidezko arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.
- h) Jarduketa guztietan eraginkortasun-, ekonomia eta efizientzia-irizpideen arabera jardungo dute, eta agintaritzaren publikoaren helburuak betetzean interes orokorra izango dute xede.
- i) Ez dute eragin negatiborik izango, tartean justifikatutako arrazoirik izan gabe, administrazio-izapideak edo -prozedurak ebatzian, ez eta, hirugarrenen interesen aurka, interes partikularren aldeko pribilegioa dakartenetan ere.
- j) Dagozkien edo agintzen zaizkien zereginak arduraz gauzatu dituzte, ezartzen diren epeak errespetatuta.

k) Enplegatu publikoaren kasuan, zerbitzu publikoko arduraldiaren eta, onuradunaren kasuan, proiektuaren helburua betetzearen printzipioari jarraituko diote, eta saihestu egingo dituzte, hala interes publikoaren aurkako jokabideak, nola zerbitzu publikoen jardunean zaindu beharreko neurteltasuna kolokan jar dezaketen jokabide guztiak.

l) Sekretupean gordeko dituzte sailkatuta dauden gaiak edo legez zabalkundea debekatuta dutenak, eta behar besteko zuhurtasunez jokatuko dute beren kargua edo dirulaguntza honen xedea betetzea dela-eta dakizkiten gaitetan; eta eskuratu duten informazio hori ezin izango dute erabili ez beren mesederako ez hirugarren batzuen mesederako, ezta interes publikoaren kalterako ere.

Enplegatu publikoei dagokienez, printzipio horiek administrazio publikoen zerbitzura diharduten funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen estatutu-araubidea arautzen duten legezko testuetan jasota daude. Hauetan: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, zeina urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen; eta 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

Horrez gain, goi-kargudunei dagokienez, haien ekintzek -publiko zein pribatuek- bat etorri beharko dute gobernu onaren balio, printzipio eta estandarrekin. Horrek berekin dakar, aurreko paragrafoetan jasotako printzipioak betetzeaz gain, ustelkeria, iruzur, arbitrariotasun, gaitasunik ez, xahukeria, eta eraginkortasun nahiz efizientzia ez eta antzekorik ez egotea, bai eta erabakiak hartzeko eta politikak ezartzeko prozesuak parte-hartze demokratikoan, gardentasunean, kontu-ematean eta legeekiko errespetuan oinarritzea ere.

Azken batean, goi-kargudunen jarduketa guztietan eredugarritasuna eta erakundeen irudia babestea lortu nahi da, herritarrek erakundeetan duten konfiantza sendotzeko bide gisa. Etengabeko hobekuntzan inplikatzeko eta ahalegina eskatzen duen bikaintasuna lortu nahi da, herritarren eskakizunak guztiz betetzeko erabaki publikoetan eta hornitzen eta ematen diren zerbitzu publikoetan. Modu eraginkorrean jardun behar da, erakundeetan eta erakundearentzat lan egiten duten pertsonen helburuekin bat egiteko.

Erakundeen kalitatea hobetzeak izan behar du xede, politikaren eta kudeaketaren arteko lan-kidetza kooperatibo estuaren bidez. Horretarako, ezinbestekoa da estrategiak, helburuak eta baliabideek behar bezala hedatzea goi-zuzendaritza exekutiboaren eta zuzendaritzako nahiz bitarteko mailen artean, bai eta Administrazioan zein Administrazioarentzat lan egiten duten gainerako pertsonen artean ere, besteak beste, dirulaguntza honen helburua betetzean. Horiek horrela, proiektuak eta informazioa partekatu beharko dira, konfiantzarako eta talde-lanerako espiritua garatu beharko da, eta Gobernu Programa garatzeko ideiak eta ekintza bultzatu beharko dira, interes orokorreko beharrak asetzearen.



## III. ERANSKINA

IRUZURRIK BADAGOEN ZEHAZTEKO ADIERAZLEEN KATALOGOAREN  
EGIAZTATZE-ZERRENDA (BANDERA GORRIAK)

Bandera gorriak balizko iruzurraren adierazle dira; horrek ez du esan nahi, ordea, bandera gorri bat egoteak iruzurra dagoela adierazten duenik, baizik eta jarduera-eremu batek aparteko arreta eskatzen duela, balizko iruzurra dagoela baztertu edo egiaztatzeko.

1.– Iruzurra dirulaguntzetan.

1.1.– Ustelkeria, eroskeria eta legez kanpoko komisioak.

Iruzurraren adierazleak:

a) Gizarte-harreman estua izatea Balorazio Batzordeko kide baten eta laguntzaren eskatzaile edo onuradun baten artean.

b) Administrazio emakida-emaileko enplegatuaeren ondasuna azalpenik gabe edo bat-batean handitzea.

c) Eskatzaileak edo onuradunak eroskeriak ordaintzeko ospea izatea sektorean.

d) Administrazio emakida-emaileko enplegatuaak uko egitea dirulaguntzen emakidarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.

e) Administrazio emakida-emaileko enplegatuaak ez aurkeztea edo ez betetzea interes-gatazkarik ez izateari buruzko adierazpena.

1.2.– Interes-gatazkak.

Iruzurraren adierazleak:

a) Eskatzaileak edo onuradunak azaldu gabeko edo ohiz kanpoko faboritismoa izatea.

b) Administrazio emakida-emaileko enplegatuaak uko egitea dirulaguntzen emakidarekin zerikusirik ez duen lanpostu batera igotzeari.

c) Administrazio emakida-emaileko enplegatuaak ez aurkeztea edo ez betetzea interes-gatazkarik ez izateari buruzko adierazpena.

d) Administrazio emakida-emaileko enplegatuaak negozio bat zuzentzea edo deialdian lehiatu dezakeen erakunde batean senitartekoak izatea.

e) Administrazio emakida-emaileko enplegatuaak edo goi-kargudun batek behin eta berriz eskatzea, beharrezkoa izan gabe, deialdiaren dokumentazioa idazteko kanpoko erakunde batera jotzeko.

1.3.– Zehaztapen itunduak.

Iruzurraren adierazleak:

a) Deialdian eskatzaile batek edo oso eskatzaile gutxik parte hartzea.

b) Sektoreko pertsona edo erakundeek erreklamazioak aurkeztea.

c) Zehaztapenak aurreko antzeko deialdietakoak baino zorrotzagoak edo nabarmenki orokorragoak izatea.

d) Zehaztapenak ohikoak edo oso arrazoizkoak ez izatea.

e) Onuradun batek emakida ugari jasotzea.

f) Administrazio emakida-emaileko enpleguaren eta eskatzaile batzuen artean harreman edo kontaktu pertsonalak izatea proiektuak ebaluatzeko prozesuan.

1.4.– Datuak filtratzea.

Iruzurraren adierazleak:

a) Emakida-prozedurak gutxi kontrolatzea (adibidez, epeak ez aplikatzea).

b) Eskakerak epez kanpo onartzea.

c) Administrazio emakida-emaileko enpleguaren eta eskatzaile batzuen artean harreman edo kontaktu pertsonalak izatea dirulaguntzak eskatzeko fasean.

d) Administrazio emakida-emaileko enpleguak informazioa behin eta berriro eskatzea, ohi ez bezala, prozedura izapidetzearen arduradun izan gabe.

1.5.– Aurkeztutako proiektuak manipulatzeko.

Iruzurraren adierazleak:

a) Sektoreko pertsona edo erakundeek erreklamazioak aurkeztea.

b) Emakida-prozedurak gutxi kontrolatzea (adibidez, epeak ez aplikatzea).

c) Jasotako eskaerak, dokumentu ofizialak edo harrera-ziurtagiriak aldatu izanaren zantzua egotea.

d) Akatsak zituzten eskaerak bidegabe baliogabetzea, nahiz eta horiek zuzentzeko eska zitezkeen.

e) Eskatzaileak arrazoi eztabaidagarriengatik baztertzea.

f) Balorazio Batzordeko kideek beharrezkoa den ezagutzarik ez izatea eta, horren ondorioz, haren pertsona bakar batek eragina izatea.

1.6.– Gainfinantzaketa eta gehigarritasun-printzipioa ez betetzea.

Iruzurraren adierazleak:

a) Laguntzaren beste finantzaketa batzuekiko bateraezintasuna ez definitzea.

b) Hirugarren iturrietatik jasotako finantzaketaren dokumentazio-euskarrik ez izatea.

c) Onuradunak gastuak ez kontrolatzea, diruz lagundutako jarduerari egotzi ahal zaizkion gastuak eta sarrerak identifikatzeko.

d) Gainfinantzaketa eragin dezakeen eragiketen lagundutako finantzaketa egotea.

e) Proiektu bera finantzatzen laguntzen duten pertsonak edo erakundeak egotea, horren berri eman gabe.

f) Hirugarren iturrien finantzaketa ez izatea finalista, eta finantzaketa hori banatzeko irizpiderik ez egotea.

g) Onuradunak ez kontrolatzea proiektuari esleitutako mugarriak edo helburuak.

1.7.– Kostuak bidegabe egotea.

Iruzurraren adierazleak:

a) Lan-kargak gehiegi edo ohiz kanpo egotea, edo proiektuaren garapenarekin bat ez etortzea.

b) Lan-fitxetan aldaketa nabariak egotea edo lan-fitxak ezin egiaztatzea.

c) Material-kostu berak proiektu bati baino gehiagori egotea.

d) Zeharkako kostuak zuzenekoak balira bezala egotea.

1.8.– Prezioak desegoki finkatzea.

Iruzurraren adierazleak:

a) Onuradunak ez aurkeztea kostuen egiaztagiria, haiek aurkezteari uko egitea edo berandu aurkeztea.

b) Onuradunak dokumentazio desegokia edo osatugabea aurkeztea.

c) Prezioak ezartzeari buruzko informazioa zaharkitua egotea.

d) Prezioak altuak izatea antzeko proiektuen prezioekin edo sektoreko batez besteko prezioekin alderatuta.

1.9.– Proiektuaren zehaztapenak ez betetzea.

Iruzurraren adierazleak:

a) Proben eta ikuskapenen emaitzak eta proiektuaren zehaztapenen emaitzak bat ez etortzea.

b) Proben edo ikuskapenen ziurtagiririk ez izatea.

c) Kalitatea eta emaitzak txarrak izatea, eta erreklamazio ugari egotea.

d) Ez eskuratzea diruz lagundutako proiektua gauzatzeko beharrezkoa dena.

1.10.– Faktura faltsuak, puztuak edo bikoiztuak.

Iruzurraren adierazleak:

a) Eskeretan dokumentu faltsuak aurkeztea.

b) Zenbateko bera, faktura-zenbaki bera eta data bera dituzten faktura bat baino gehiago egotea.

c) Kateko azpikontratazioak egitea, deialdiaren oinarrietan aurreikusitako gehieneko ehuneko gaitzen dutenak.

d) Paradisu fiskaletan inskribatuta dauden enpresei edo eskudirutan ordaintzea.

e) Diruz lagundu daitezkeen gastu gisa sartutako ondasun edo zerbitzuen egoeraren berri ezin ematea edo sinesgarria ez izatea.

### 1.11.– Lehia mugatzea.

Iruzuraren adierazleak:

a) Deialdiaren oinarriak ez zabaltzea, eta ez betetzea legez eskatutako publizitate- eta gardentasun-printzipioak.

b) Onuradunek bete behar dituzten baldintzak argi ez adieraztea edo haiek anbiguoak izatea, eta, ondorioz, burutik kentzea deialdira aurkezteko asmoa edo onuradun jakin bat nahita hautatzea.

c) Epean aurkeztutako eskaerak baztertzea edo epez kanpo aurkeztutakoak onartzea.

d) Oinarri arautzaileak argitaratzean ez sartzea eskaerak baloratzeko baremoak.

### 1.12.– Auditoretza-aztarna galtzea.

Iruzuraren adierazleak:

a) Auditoretza-aztarna bermatzeko aukera emango duen eragiketaren dokumentazioa desegokia izatea.

b) Deialdiaren oinarrietan ez adieraztea nola dokumentatu daitezkeen diruz lagundu daitezkeen gastuak, ez eta nola kalkula daitezkeen kostuak ere.

## 2.– Faltsututako dokumentuak hautematea.

### 2.1.– Dokumentuen formatua.

Iruzuraren adierazleak:

a) Fakturak eta gutunak enpresaren logotiporik gabe egotea.

b) Fakturak ezarritako inprimakiak ez bezalako paperetan inprimatzea.

c) Ageriko desberdintasunak egotea dokumentuaren letra motan, tamainan, egituran eta kolorean.

d) Ezabatutako edo zirriborratutako zifrak egotea, baimendutako pertsonen sinadurarik gabeko baliogabetzeak.

e) Baimendutako pertsonen sinadurarik gabe zenbatekoak edo dokumentu bateko elementuak eskuz idaztea, behar bezala justifikatu gabe.

f) Letrarik ez egotea edo gehiegi egotea; testuaren lerroetan jarraitutasunik ez egotea.

g) Zigilu ofizialetan ezohiko koloreak edo ertz biziagiak egotea, ordenagailu-inprimagailu bat erabili dela adieraz dezaketenak.

h) Pertsonen sinadurak guztiz berdinak (formatuan eta tamainan) egotea hainbat dokumentutan, ordenagailuz egindako faltsifikazioa dela iradokitzen dutenak.

### 2.2.– Dokumentuen edukia.

Iruzuraren adierazleak:

a) Ezohiko datak, zenbatekoak, oharrak, telefono-zenbakiak eta kalkuluak egotea.

b) Kontrol sekuentzialetan erregistrorik ez izatea.

c) Faktura edo elektronikoki egindako hartzekoen orri batean kalkulu okerrak egotea (adibidez, eragiketekin baturarekin bat ez datozen guztizko zenbatekoak).

d) Faktura batean ez egotea nahitaezkoa den elementuren bat: data, identifikazio fiskaleko zenbakia edo faktura-zenbakia.

e) Zenbait dokumentutan zigilu batek eta sinadura pertsonal batek posizio bera izatea (horrek iradoki baitezake irudi bat erabili dela).

f) Kontratataren harremanetarako daturik ez izatea.

g) Fakturretan eta salgaien emate-oharretan serie-zenbakirik ez egotea.

h) Ondasunen edo zerbitzuen deskribapena zehaztugabea izatea.

i) Banku-kontuko zenbakietan ezberdintasunak eta anomaliak egotea.

2.3.– Dokumentuen inguruabarrak.

Iruzuraren adierazleak:

a) Onuradunaren helbidea eta administrazio emakida-emaileko enpleguarena helbide bera izatea.

b) Onuradunaren helbidea enpresak helbideratzen dituen erakunde batean egotea.

c) Fakturak edo salmenta-zerrendak enpresa-jardueren erregistroan inskribatu gabeko erakundeek jaulkitzea.

d) Informazioa ezohiko atzerapenez aurkeztea.

e) Onuradunak jatorrizko dokumentuak ez aurkeztea.

f) Dokumentuan jasotako datuak bisualki bat ez etortzea onuradunak emandako antzeko dokumentu batekin.

g) Sozietateen erregistro publiko eskuragarrietan erregistratuta ez dagoen edo baliabide publikoetan aurkitu ezin den enpresa bat aipatzea.

h) Fakturak sortu berri den enpresa batek eginak izatea.

i) Sozietatearen posta elektronikoko helbideek atzerriko Interneteko zerbitzari batean jaulkitzen dute faktura.

2.4.– Dokumentazioaren eta eskuragarri dagoen informazioaren arteko koherentzia eza.

Iruzuraren adierazleak:

a) Inkoherentzia egotea erakundeak berak jaulkitako fakturen daten eta zenbakiaren artean.

b) Fakturak kontabilitatean erregistratu gabekoak izatea.

c) Fakturak bat ez etortzea aurrekontuekin, prezioari, kantitateari eta kalitateari, produktu-motari eta/edo egindako obraren deskribapenari dagokienez.

d) Gutuna/kontratua/dokumentua enpresaren ordezkari gisa diharduen pertsona batek sinatzea, nahiz eta ez duten izendatu enpresen erregistro nazionalen.

## IV. ERANSKINA

SUSPERTZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANEKO JARDUKETAK GAUZATZEAREKIN  
LOTUTAKO KONPROMISOAREN ADIERAZPENA

(Irailaren 29ko HFP/1030 Aginduaren IV.C eranskina).

..... jaunak/andreak (NAN-zk.:.....)  
..... erakundearen kontseilari ordezkari/kudeatzaile  
gisa (IFZ:.....; egoitza soziala:.....), C24.I2.P2.S1  
azpi proiektuan zehaztutako helburuak lortzeko SEEPtik datozen baliabideekin finantzatutako laguntzen  
eskatzaileak, adierazten du ordezkatzeko duen pertsonak/erakundeak konpromisoa hartu duela  
estandar zorrotzenak aintzat hartzeko arau juridikoak, etikoak eta moralak betetzeari dagokionez.  
Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak  
prebenitu eta detektatzeko, eta ez-betetzeari hautemanen gero, haien berri emango die agintari  
eskudunei.

Gainera, SEEPren edukia aintzat hartuta, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren  
printzipioak betetzeko eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko («do no significant harm»,  
ingeleseko siglak: «DNSH») plan horren esparruko jarduketak gauzatzean, eta adierazten du ez duela  
finantzaketa bikoitzik, eta, duen informazioaren arabera, ez dagoela bateraezintasun-arriskurik  
Estatuko laguntza-araubidea dela eta.

Ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko printzipioari dagokionez, honako hauetarako  
konpromisoa hartzen du:

1.– 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluko sei ingurumen-helburuei kalte nabarmenik ez  
egitea. Honako hauek dira helburu horiek:

- a) Klima-aldaketa leuntzea.
- b) Klima-aldaketara egokitzea.
- c) Itsas eta ur-baliabideak babestea eta modu jasangarrian erabiltzea.
- d) Ekonomia zirkularra, hondakinak prebenitzea eta birziklatzea barne.
- e) Atmosferaren, uraren eta lurraren kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.
- f) Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea.

2.– Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko erregelamendua betez, «kalte nabarmenik  
ez eragiteko» printzipioa aplikatzeko gida teknikoak adierazitakoaren arabera baztertutako jarduerarik  
ez garatzea.

3.– Ez dira aurreikusten jardueraren ondoz ondoko faseek ingurumenean zuzeneko ondoriorik  
izango dutenik, ezta zeharkako lehen mailako ondoriorik ere, hau da, diruz lagundutako jarduera egin  
ondoren gauza daitezkeenak.

Adierazpen honetan ezarritako betekizunak bete ezean, itzultzeko prozedurara jo aurretik, jasotako  
dirulaguntza eta berandutze-interesak itzuli egin beharko dira.

Xxx(e)n, sinadura elektronikoaren datan.

## V. ERANSKINA

## INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

..... jaunak/andreak (NAN-zk.:.....)  
..... erakundearen kontseilari ordezkari/kudeatzaile  
gisa (IFZ:.....; egoitza soziala:.....), C24.I2.P2.S1  
azpi proiektuan zehaztutako helburuak lortzeko SEEPtik datozen baliabideekin finantzatutako laguntzen eskatzaileak, aitortzen dut:

Lehenengoa.– Honako hauen berri dudala:

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren Finantza-araudia) 61.3 artikulua («Interes-gatazka») ezartzen du «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, afinitate politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».

2.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua lehiaren edozein distortsio saihestea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatuak guztiei tratu berdintasuna ziurtatzea da.

3.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartetik abstenitu egingo direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean»; honako hauek dira:

a) Interes pertsonala izatea kasuan kasuko gaien edo haren ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunaren administratzailea izatea, edo interesdunen batekin konpondu gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkari edo mandataritzarako.

c) Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.

e) Gaiaren zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

Bigarrena.– Ez nagoela dirulaguntzaren prozeduran parte hartzen duen pertsonaren bat EBko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitako kasuren batean egotea eragin dezakeen ezein egoeratan; era berean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan aurreikusitako arrazoiekin bat etorritik, ez dudala prozeduran parte hartzen duen eta dirulaguntza emateko prozeduran edo, ondoren, deialdiaren oinarrietan aurreikusitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozeduran eragina eduki dezakeen edo eduki ahal izan duen pertsona bati ere abstentzioa emateko arrazoirik.

Hirugarrena.– Konpromisoa hartzen dudala organo eskudunari jakinarazteko, luzamendurik gabe, dirulaguntzen prozeduran parte hartzen duen pertsona bati dagokionez, interes-gatazka eragin dezakeen edo pertsona hori abstenitzeko arrazoi izan daitekeen edozein inguruabar, baldin eta egoera hori eragin badu edo eragin badezake.

Laugarrena.– Konfidentziasunez tratatuko ditudala dirulaguntzen prozedura honen barruan, onuradun naizen aldetik, dagozkidan jarduerak gauzatzearen ondoriozko betebeharrak garatzean eskura ditzakedan gaiak eta dokumentazioa, eta ez dudala modu desegokian erabiliko, onuraduna naizen aldetik, dirulaguntzen prozeduran parte hartzean eskura dezakedan informazioa.

Bosgarrena.– Badakidala aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratiboak eta judizialak ezarriko direla, baldin eta interes-gatazkarik ezaren adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada.

Xxx(e)n, sinadura elektronikoaren datan.



## VI. ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZAREN IRUZURRAREN AURKAKO PLANA ETA ERAKUNDE-ADIERAZPENA  
BALDINTZARIK ETA ERRESERBARIK GABE ONARTZEARI BURUZKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN-zk.....)  
..... erakundearen kontseilari ordezkari/kudeatzaile  
gisa (IFZ:.....; egoitza soziala:.....), C24.I2.P2.S1  
azpiproiektuan zehaztutako helburuak lortzeko SEEPtik datozen baliabideekin finantzatutako laguntzen  
eskatzailleak, adierazten du baldintzarik eta erreserbarik gabe onartuko dituela Suspertze, Eraldatze eta  
Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa  
bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko neurrien  
Plana, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Iruzurraren aurkako Erakunde Adierazpena ere. Eusko  
Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an egindako bilkuran onartu zituen, eta  
Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko  
40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu ziren, 2022ko apirilaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren  
Aldizkarian (74. zk.).

Xxx(e)n, sinadura elektronikoaren datan.

## VII. ERANSKINA

SUSPERTZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANEKO JARDUKETAK GAUZATZEAREKIN  
LOTUTA DATUAK EMAN ETA TRATATZEARI BURUZKO ADIERAZPENA

(Irailaren 29ko HFP/1030 Aginduaren IV.B eranskina).

..... jaunak/andreak (NAN-zk.....)  
..... erakundearen kontseilari ordezkari/kudeatzaile gisa  
(IFZ:.....); egoitza  
soziala:.....), C24.I2.P2.S1 azpiproiektuan  
zehaztutako helburuak lortzeko SEEPtik datozen baliabideekin finantzatutako laguntzen eskatzaileak,  
adierazten du ezagutzen duela aplikatzekoa den araudia, zehazki, Europako Parlamentuaren eta  
Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren (Suspertze eta Erresilientzia  
Mekanismoa ezartzen duena) 22. artikuluko apartatu hauek:

1.2.– apartatuko d) letra: «Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan berrikuntzak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrietarako funtsen erabileraren auditoretza eta kontrola egiteko, bilaketak egitea ahalbidetuko duen formatu elektronikoko batean eta datu-base bakar batean, honako datu-kategoria bateratu hauek biltzea:

i.– Funtsen azken hartzailearen izena;

ii.– Kontratatoren eta azpikontratatoren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzaileraren denean, kontratazio publikoaren arloan Europar Batasuneko zuzenbidearen edo zuzenbide nazionalaren arabera;

iii.– Funtsen hartzailearen edo kontratatoren titular errealeko izen-abizenak eta jaiotze-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 6. puntuko 3. artikuluan definitzen denaren arabera (26);

iv.– Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan berrikuntzak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrien zerrenda bat, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera. Azken horiek, Mekanismoaren esparruan eta Europar Batasuneko beste funts batzuen bidez ordaindutako funtsen zenbatekoa adierazi behar du».

2.3.– apartatua: «Artikulu honen 2. apartatuko d) letran aipatutako datu pertsonalak estatu kideek eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu-kudeaketaren onespeneraren eta 15. artikuluko 2. apartatuan eta 23. artikuluko 1. apartatuan aipatutako akordioak aplikatzeko funtsen erabilerarekin lotutako kontrol-prozeduren auditoretzaren ondorioetarako eta auditoretzak dirauen bitartean. Batzordearen kudeaketa onesteko prozeduraren esparruan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 319. artikulua arabera, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu, Finantza Erregelamenduaren 247. artikulua aipatzen dituen finantza-informazioaren eta kontu-emate integratuaren esparruan, eta, bereziki, berezita, kudeaketari eta errendimenduari buruzko urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoarekin bat, adierazten du onartu egiten duela datuak ematea eta tratatzea, aipatutako artikuluekin berariaz lotuta dauden helburuetarako.

Xxx(e)n, sinadura elektronikoaren datan.

2022ko azaroaren 14a, astelehena

## VIII. ERANSKINA

## BERARIAZKO BAIMENA EMATEA EUROPAKO BATZORDEARI, IRUZURRAREN AURKAKO EUROPAKO BULEGOARI, EUROPAKO KONTUEN AUZITEGIARI ETA FISKALTZARI, FINANTZA-ERREGELAMENDUAREN 129.1 ARTIKULUAK AITORTZEN DITUEN ESKUBIDEAK EGIKARITZEKO

..... jaunak/andreak (NAN-zk.....)  
..... erakundearen kontseilari  
ordezkari/kudeatzaile gisa (IFZ:.....; egoitza  
soziala:.....),

C24.I2.P2.S1 azpiproiektuan zehaztutako helburuak lortzeko SEEPtik datozen baliabideekin finantzatutako laguntzen eskatzaileak, adierazten du ezagutzen duela aplikatzekoa den araudia, zehazki, Europako Parlamentuaren edo Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) 22. artikuluko apartatu hau:

2. apartatuko e) letra: «Berariazko baimena ematea Europako Batzordeari, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduaren 129.1 artikulua aitortzen dituen eskubideak egikaritzeko, eta Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan berrikuntzak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken hartzaileak edo neurriak aplikatzen esku hartzen duten gainerako pertsonak eta erakundeak behartzea; eta berariazko baimena ematea Europako Batzordeari, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduaren 129.1 artikulua aitortzen dituen eskubideak egikaritzeko eta funtsen azken hartzaileei antzeko betebeharrak ezartzeko».

Adierazitako esparru juridikoarekin bat, berariaz baimena ematen die aipatutako organoei eta erakundeei adierazitako eskubideak egikaritzeko.

Xxx(e)n, sinadura elektronikoaren datan.